

## **Haur Hezkuntza. Gizonon Erronka.**

*Javier Ignacio Arnal Gil*

*Hizkuntzaren eta literaturaren didaktika sailean.  
Universidad del País Vasco*

La realidad es abrumadora. La Educación Infantil está ocupada casi en exclusividad por mujeres. Expresado de otra manera: son muy pocos los hombres, maestros o educadores, que participan en la primera etapa de la educación escolar.

Tal vez el *carácter no obligatorio* de la Educación Infantil nos haga pensar que su importancia es manifiestamente inferior al resto de etapas educativas. Obviamente, esto es un error. Pero tal vez sea esa “menor consideración” uno de los muchos factores que impide que se estreche la relación entre hombre y Educación Infantil.

A lo largo de este trabajo pretendemos plantear situaciones y motivos para la reflexión. Ésa es nuestra intención.

Vivimos en una sociedad variopinta y cambiante. El modelo único y tradicional de familia está siendo superado. Cambia la morfología social: emigración, parejas interétnicas, familias monoparentales, padres y madres del mismo sexo. *Hay más color que nunca*, y la escuela, al igual que cualquier otro ámbito social, debe dar respuesta a esta situación.

¿Cómo afrontamos esta nueva realidad?

Son muchos los esfuerzos que se están realizando. La *literatura infantil* da entrada a estas nuevas situaciones sociales y familiares. Se diseñan *unidades didácticas* acordes a los cambios mencionados. *Diversidad*. Palabra de moda en educación. Estamos empezando a vivirla, a experimentarla, pero dicha diversidad no sólo debe afectar a niños, niñas y familias. También debe empapar a la escuela como institución, en todos sus niveles.

Necesitamos diversidad entre el profesorado. Necesitamos más hombres en la Educación Infantil.

### **Gako hitzak: Educación infantil, coeducación, hombre, igualdad, valores**

Para hacer referencia de este artículo:

Arna, J. I. (2007). Haur Hezkuntza. Gizonon Erronka, *e-Revista de Didáctica 1*, Retrieved 2007/12/1 from [http://www.chu.es/ikastorratza/1\\_alea/hezkidetza.pdf](http://www.chu.es/ikastorratza/1_alea/hezkidetza.pdf) (issn: 1988-5911).

## 1. SARRERA

Errealitatea abailgarria da. Haur Hezkuntza, ia eksklusiboki, emakumezkoek okupatzen dute. Beste era batean esanik: gutxi dira heziketaren aurreneko etapan diharduten gizonak<sup>1</sup>.

Agian, Haur Hezkuntza *ez derrigorrezkoa* izateak pentsarazten digu bere garrantzia beste etapena baino txikiagoa dela. Bistakoa da errakuntza. Baliteke “garrantzi txikiago” horrek Haur Hezkuntza eta gizonezkoaren arteko harremana oztopatzea. Dena den konbentziturik gaude premisa hori ez dela definitiboa, eta badirela beste traba asko bien arteko harreman egokia galarazten dutenak.

Artikulu honekin lehen pauso bat eman nahi dugu. Hausnarketarako egoerak eta motiboak planteatu. Horixe da geure asmoa.

Gizarte aldakorrean bizi gara. Familiaren eredu bakar eta tradizionala gauditua izatera doa. Gizarte morfologia aldatzen ari da: emigrazioa, bikote interretnikoak, familia monoparentalak, sexu bereko gurasoak. *Gizartea sekula baino koloretsuagoa da*, eta eskolak, edozein gizarte esparruk bezalaxe, erantzun behar dio egoera honi.

*Nola aurre egin errealitate berri honi?*

Askok dira burutzen ari diren esfortzu eta ahaleginak. *Haur Literaturak* bere gain hartu ditu egoera sozial eta familiar berri hauek. Aipaturiko aldaketei egokitutako *unitate didaktikoak* diseinatzen dira.

*Aniztasuna eta dibertsitatea*; hezkuntzaren munduan indarrean ditugun kontzeptuak. Berauek esperimintatzen eta bizi izatera hasiak gara. Halere, dibertsitate honek, ez ditu soilik haurrak eta sendiak afektatu behar. Eskola ere, instituzio denez gero, “melatu” beharra dauka bere etapa guztietan.

Dibertsitatea behar dugu irakaslearen artean. Gizonezko gehiago behar dugu Haur Hezkuntzan.

<sup>1</sup> Gaur egun Arabako Irakasle Eskolan 454 ikasle izena emana dute Haur Hezkuntzan. Hauetariko 35 mutilak dira, hau da %8a. Azken hamar urteetan %15a izan da batz bestekoa. 2001-2002 ikasturtean gailurra jo zen %20a mutilak izan zirelarik. 1992-1993 ikasturtean, berriz, espezialitate hau martxan jarri zen urtean, mutil bakar bat zegoen.

## 2. ZERGATIK GIZON GUTXI HAUR HEZKUNTZAN?

Galdera honi erantzun egokia eman ahal izateko, lehenik eta behin gure kultura eta giza ondasunak arretaz aztertu beharko ditugu.

### 2.a. Tradizioa

*Tradizioz* datorkigu haurrak zaintzarekin eta irakastearekin zerikusirik daukaten jarduera guztiak emakumeen zereginekin lotzeko joera. Ama, batez ere, izaten da umearen behar fisiko eta afektiboak asetzen dituenak. Ama ez dagoenean, etxetik kanpo ere sarritan lan egiten duelako, umeak zaintzea beste emakume bati egokitzen zaio: amamari, izeba bati, lagun bati, edota bigarren solairuko auzokideari. Gizonaren eginkizuna oraindik behar baino eskasagoa izaten da. Gainera, gure seme-alabez arduratu behar dugun une apurretan berehala ohartzen gara gure *baliabide-poltsa* oso txikia dela. Dirudenez, gizonok ez gintuzten hezi ume txikiaren beharrei aurre egiteko, horregatik senperrenak ikusten ditugu umearen gorputz-zainketak (haur-oihalak aldatzea, gorputz-krema ematea, sendaketak egitea...), oinarrizko behar fisiologikoak (bainatzea, janaria ematea, lo egiten laguntzea...), edota jolasteko eta ikasteko zenbait

jarduera (dantza egitea, abestea, *ku-ku* egitea, gorputza ezagutzea...) egin behar ditugunean.

Aurreko paragrafoan aipatutako jarduera guztiek *sentimenduak azaleratzea eta afektibitatea sakonki lantzea* dakarte. Eta gainera gizonok izan dugun *ohiko heziketa* kontuan hartzen badugu, emaitza argia da: “tokiz kanpoko gizona”. Hau da, gizonok haur hezkuntzarako ezgaitzat hartzen dugu gure burua: ezgai umeekin egoteko, ezgai umeekin egoten ikasteko ere. Ondorioz, Irakasle Eskolako ikasle-mutil askok Haur Hezkuntza saihesten du.

Orain arte gizasemeok Haur Hezkuntzari alde egitearen arrazoiren bat aztertu dugu. Beraz, ikasle askok pentsatu bide du 0 eta 6 urte arteko umeek osatutako ikasgela bat gizon batek gobernatzea ezinezkoa dela. Hortaz gizon gutxi Haur Hezkuntzara hurbiltzea. Hezkuntzaren mundua ezagutzen dugunoi ez zaizkigu batere arraroak izango Lehen Hezkuntzako irakasle hark Haur hezkuntzako gela hartan bizi izandako gora beherak. “*Ordezkorik ez zegoelako 3 urteko gelara bidali ninduten. Huraxe izan zen nire bizitza osoan bizi izan dudana ordu luzeena. Ez nekien zer egin, ezta egoerari nondik heldu. Harrez geroztik miresten ditut, benetan, Haur Hezkuntzako lankideak*”.

## **2.b. Oztopoak**

Baina ez dira hauek zailtasun bakarrak. *Oztopo* ugari dira hezkuntzaren ziklo honetan gizonok gaintitu behar ditugunak. Berariaz aipatu dugu *zaintze* hitza txikienekin gauzatzen diren jarduerak azaltzerakoan. Eta helburu zehatz batekin egin dugu, hezkuntzan *zaintzaile* deitura gizonok gaintitu behar dugun beste “harresi” bat baita. *Zaintzaileak hezitzaileak* baino lan kategoria baxuagokotzat hartzen dira, eta *irakasleak* baino askoz baxuagoak, hain zuzen.. Ziklo honi eskaintzen zaion beherengo arretak (0-3an, batez ere), eta bere heziketa-balioa gutxietsia izateak, (askotan Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko lana haur-oihalak aldatze hutsarekin parekatzen da), mutil-gizonok Haur Hezkuntzatik oso urrun egotea ekartzen dute, hau da, ikasle horiek Haur Hezkuntzarekiko *bere burua baztertzea*.

Zoritzarrez hezkuntza ziklo bakoitzari egokitzen zaion garrantziak zerikusi handia dauka ikasleen adinarekin. Ondorioz, *hezkuntza mailak igotzen ditugun heinean gero eta irakasle-gizon gehiago* aurkituko dugu. Honez gain, aintzat hartzen badugu Haur Hezkuntzari dagozkion *lan-baldintzak* gainontzeko zikloei dagozkienak baino askoz eskasagoak direla, ez zaigu batere zaila egingo Haur Hezkuntzarekiko gizonezkoen errefusa ulertzea (ordutegi eta egutegi luzeagoak, soldata txikiagoa).

## **2.c. Umezaintza**

Eta orain, arinean bada ere, azter ditzagun gizonok txikienean hezkuntzatik at bidaltzen gaituzten *beste alderdi batzuk*.

Etor gaitezen *hiztegira*.

*Umezaintza-haurtzaindegia*. Gaur egun horixe izaten da 0 eta 3 urte arteko hezkuntzan aritzen diren ikastetxeei egokitzen zaizkien izenak, nahiz eta horietariko asko, euren ezaugarriak direla eta, haur eskolak diren. *Umezaintza*: umeak eta zaintzea batzen dituen hitza. “*Ez naiz ni izango urte luzeak emango dituen karrera bat egiten, ondoren zaintzaile bat baino ez izateko. Nik HEZKUNTZAN nahi dut aritu*”. Ez da beharrezkoa azalpen gehiago ematea.

Egin dezagun hausnarketa aurreko paragrafoan esandakoarekin, honek ondorio garrantzitsu asko dakar eta. *Irakaskuntza globalizatua* zer den bikain ulertu behar dugu, horixe baita Haur Hezkuntzaren ezaugarri inportanteenetariko bat. *Irakaskuntza globalizatua* erabat lotuta dago umeen ikaste prozesuarekin (era zatiezin batean, alegia), eta baita *tradizioz asistentziakotzat hartuak izan diren jarduera guztiei balio edukatiboa emateko behar*arekin. Haur-oihalak aldatzearen gainean ari gara, garbitasunaren gainean, elikatzearen gainean, eta baita loaren gainean ere. Jarduera hauek guztiek berez hezkuntza-eduki handi bat daramate. Irudimen pittin batez eta burua zabalduz gero hezkuntza-eduki hori topatzea ez zaigu batere nekeza izango.

#### **2.d. Beste oztopo batzuk**

Eta orain har dezagun atsedean. Erlaxa gaitzen. Esan dezagun, lan eta hezkuntza faktoreez gain, gizasemeok *erreparo* asko agertzen dugula *zer esango dutenaren* aurrean. “*Haurtzaindegi bateko irakaslea? Ez zara ..... izango?*”

Kontuan hartzen al ditugu *besteon iritziak*? Baiezkoan gaude.

Eta, zer esango dugu haur eskolak janzten dituzten koloreei eta apainketari buruz? Batek baino gehiagok pentsatu bide du bat ez datozela bere sexualitate eztabaidaezinekin.

Lan-jantzien edo uniformeen gainean hitz egiten bukatu nahi dugu; hezitzaileek janzten dituzten kolore ikusgarrietako txabusina horien gainean, hain zuzen. “*Nik horrelako bat jantzi? Ezta pentsatu ere!*” Garbi dago hau ez dela benetako arazoetako bat. Aukera dezagun bada nahi dugun jantzia eta janzkera, (erosoa bada hobe, umeekin lurrean etzanda edota belauniko egoteko aproposa), eta bazter ditzagun hutsalkeriak

Azken finean, oso luzea da oraindik ibiltzeke daukagun bidea, eta asko gainditu beharreko aurreiritziak. Helmuga? Haur Hezkuntzaren normalizazioa. Dirua, gogoa, interesa, denbora eta giza eta kultura aldaketak behar ditugu nahi dugun jomugaraino heltzeko. Eta heldu helduko gara, jakina!

### **3. ZERGATIK GIZONEZKO GEHIAGOREN BEHARRA HAUR HEZKUNTZAN?**

Galdera honen aurrean nahi adina erantzun formula genezake. Adin honetan, 0 eta 6 urte bitartean, dagoen haurtxo bakoitza pisu handiko arrazoï garrantzitsu bat izango genuke. Dударik ez. Nolanahi ere, geure ustez aparteko garrantzia duten hiru arrazoitan zentratuko gara bereziki.

1. Gizonezkoon ekarpena askoz handiagoa izan daitekeelako, eta sexuen arteko *benetako berdintasuna* lortzeko beharrezkoa delako. Benetako berdintasuna: emakumezko nahiz gizonen arteko zeregin eta rolen elkartruke hutsa izango ez den berdintasuna, baizik eta konpartitzean oinarrituko dena. *Konpartitu*, ukitzen ari garen gai eta autu honetxan giltza eta gakoa.
2. Gizarte osoari, eta haurrei bereziki, egiazko hezkidetzaren eredu berri bat eskaintzeko. Txikienen behar fisiko zein afektiboak asebetetzen gai garela barneratu beharra dugulako, euren garapenean laguntza handia eskaini ahal baitiegu.
3. Gizonezkook ere, duda izpirik gabe, haurrentzako erreferentzia garelako eta izan behar dugulako.

### **4. ZER ESKAINI DIEZAIKEGU GIZONOK HAUR HEZKUNTZARI?**

Orriak eta orriak bete genitzake planteatutako galdekizunaren garapenean, hala ere beti konklusio berbera aterako genukeela uste dugu: *gizonezkook Haur Hezkuntzari potentzialki eskaini diezaiokeguna eta emakumezkoek eskaintzen diotena, bat datoz.*

Honela bada, ideia bat hartuko dugu aintzakotzat; beste edozein profesionalak – emakumeak- egingo lukeenaz gainera, eta egungo Haur Hezkuntzaren errealitatea kontuan harturik, gizonok gure *eredua* eskaini dezakegu:

- a. 0-6 etapan kasik ez dagoen eredua.
- b. Hurrekiko hezkidetzan erreferentzia izango den eredua. Umeek era naturalean bizi behar dute gizonezkoon nahiz emakumezkoen gaitasuna euren heziketan zein garapenean.
- c. Familiei alde batetik, eta gizarteari berari ere bestetik, txikienen heziketa denon gauza dela pentsarazi egingo dien eredua. Bidezkoa eta bistakoa baita, sexuen arteko berdintasuna ez dela soilik emakumeak tradizionalki gizasemeek buruturiko jardueretara berdintasunean heltzea, baizik eta gizonok ditugun abilitateak betidanik sexu femeninoari adjudikatutako esparruetan garatu ditzagula.

## 5. HEZKIDETZA ETA HAUR HEZKUNTZA

Astiro bada ere, orain artean emakumezkoek eskusibotasunean buruturiko jardueretan gizonezkoen presentzia areagotzen ari da. Etxeko lanetan eta, berauen artean, haurren zaintzan zein hezkuntzan batik bat.

Haur eskolak lagundu nahi du aldaketa honetan eta modernotasunez janzten da. Ahaleginak egiten ditugu neska-mutikoen artean gaitasunak, jokaerak eta baloreak ez bereizteko. Guztiei aktibitate, jolas, tresna eta aukera berberak eskaintzen dizkiegu. Hormirudietan nahiz lan-fitxetan gizasemeak erruz agertzen zaizkigu; aitak etxeko lanak egiten, seme-alabekin olgetan, eta haurrok ikastetxeetara eramanez nahiz ikastetxeetatik bilduz.

Ongi deritzogu, oso ongi. Halaxe ere, ez dugu irakasle-gizonik ikusten. Ez fitxetan, ez afitxetan, ezta errealitatean ere. Haur hezkuntzako irakasle-gizonezkoak noiz utziko dio salbuespen izateari?

Zorionez, badira *aitzindariak*. Nolanahi ere, magisteritza eskoletako ikasle-gizakumeek Haur Hezkuntza espezialitatea hautatzerakoan beste edozein espezialitatetan azaltzen duten *naturaltasun* bera agertu arte, bide luzea dugu ibiltzeke. Izan ere, hauxe estreinako urratsetako bat litzateke. Garrantzitsuena apika. Ordura arte baina, traba eta oztopo ugari dugu bideratzeke.

## 6. NOLA ERRAZTU GIZONEZKOON INPLIKAZIOA HAUR HEZKUNTZAN?

- a. **Gizonak gizonari deitu.** Argi dago aitzindarien lana beti oso zaila dela, batzuetan gutxi edota gaizki ulertua. Inertziaz edo imitazioz funtzionatzeko joera dugu. Geure gizartean sakonki errotutako ereduak segitzen ditugu, arrazoiak larregi kuestionatu gabe. *“Aita medikua da, beraz neuk ere medikua izan nahi dut”*. Erreferentzia eredurik gabe – sexuari edota baldintza sozialei dagokienez -, gaitza egiten zaio edonori aurretik inork burutu egin ez duen lana berak burutzea. Aitzindarien lana zaila dela genioen, eta zaila da bizitzaren edozein arlotan *aitzindariak* aurkitzea. Gutxi batzuk dira Haur Hezkuntzan diharduten gizasemeak, baina egon, badaude. *Aitzindariok* egoteak, eta euren esperientziak

era positiboan zabaltzeko lana errazteak, abiapuntua izan behar dute beste gizonezko batzuk Haur Hezkuntzaren *basamortura* erakartzeko. Antza handia du ongi ulerturiko kolonizazio laboreekin. “*Urliak, sandiak edota berendiak egin badute, eta, dirudienez, espero bezala atera bazaie, neuk ere eraiki dezaket nire etxaldea basamortu edo eremu horretantxe*”. Orain arte geuretzat ezezaguna zen habitatean bizi daiteke. Habitat bera aberats dezakegu ere, bertakoekin –*andereñoekin*- eztabaidan edo gatazkan sartu beharrik gabe. Laburbilduz, *gizonak gizonari deitu*.

- b. Ukitu beharreko bigarren puntua beste atal batzuetan garatuko dugu baina, bere erabateko garrantzia aintzat harturik, behar beste errepikatu eta aztertuko dugu. Utzi behar dugu Haur Hezkuntzak bere baitan daraman **isileko curriculum** handia azaleratzen. Beharrezkoa zaigu etapa honek duen berebiziko inportantzia eta benetako balio hezigarria onartzea, eta era berean dituen ezaugarri propioak errekonozitzea. Ez dugu inolaz ere ahortzi behar aurreneko hilabete eta urte hauetan zehar haurrek ikasten dutela hitz egiten (batzuetan hizkuntza bat baino gehiago), baita ibiltzen ikasi ere, korrika egiten, estreinako harremanak, irakur zein idatz alorretan lehendabiziko urratsak ematen dituztela, pentsamendu matematikoa, erritmoa, eta bizitzan zehar etengabe garatuko dituzten ezagupenen eta jarrerren oinarriak ezarriko dituztela. Hau dena bizitzaren etapa honetantxe.
- Azken lerroetan jakitera emandako guztiaz hausnartuz gero, uste dugu inork ez duela duda izpirik izango: egiakzko Haur Hezkuntza on bat eskaintzea zeharo garrantzitsua da, ezinbestekoa. Edo akaso, inportanteagoa al da jakitea zein urtetan iritsi zen Colón Ameriketara aurreko paragrafoan seinaturaluriko zeinahi aprendizai baina?

## 7. DISKRIMINAZIO POSITIBORIK?

Informazio eta kontzientziazte lanez gain, gizonezkoaren hurbilketa Haur Hezkuntzaren mundura ahalbideratzeko, beharrezkoa al da beste bide batzuk erabiltzea? Komenigarria al litzateke Haur Hezkuntzan – Musika, Atzerriko Hizkuntza edota Hezkuntza fisikoan espezialistentzat dauden legez - gizonezkoentzako plaza eskusiboak egotea?

Ez ditugu galderok ihardetsiko. Airean utziko ditugu edozeinek, nahi izanez gero, berriazko hausnarketa egin dezan. Geurea, geure iritzia, urruti dago sistema hau egoki ikustetik, eta apustu egiten dugu Haur Hezkuntzaren mundu honetara gizasemeen hurbilketa prozesu naturala izan dadin, arinagotua izango ahal dena, gizartearen nahiz hezkuntza komunitatearen benetako gura zein desioari erantzungo diena.

Edonola ere, gogorarazi nahi dugu Eusko Jaurlaritzatik, *familia eta lana adiskidetze politika* deritzonaren barne, bultzatu edo lagundu egiten dela gizonezkoen partehartzea hezkuntza lanetan eta adin-txikikoen zaintzan. *Politika* honetantxe, 6 urte baino gutxiagoko seme-alabez arduratzeko lanaldi murriztua eskatu egiten duten gizonezkoen saritu egiten zaie ekonomikoki. Beste era batean adierazita: badira aurretikoak.

## 8. GAINDITU BEHARREKOA

Baina ez gaitzen engainatu. Haur Hezkuntzako espezialitatea hautatzen duen gizonak edo mutilak, erabaki honekin geroko *aitzindari* lanerako urratsik garrantzitsuena emana duen arren, *oztopo desberdinak* aurkituko ditu aukeraturiko bidean. Hausnartu, duda-

mudatan ibili eta hartutako erabakia benetan onena izan den pentsaraziko duten *trabak eta oztopoak*.

Lehenik eta behin, familia bat baino gehiago izango dira – euren seme-alabez arduratzen emakumezkoak ikusten ohituta -, irakasle-gizonaren gaitasun eta abilitateetan konfiantzarik eza agerraraziko dutenak. “*Baina honek, ba ote daki zer den ipurtzapiren bat aldatzea?*”

Beharbada *lankide-andereño* batzuk mesfidati egongo dira etorri berriarekiko, euren esparru naturala inbaditzen ari dela kontsideratu ere. Gehiengoak, dudarik txikiena ere ez dugu, beste bat bezalaxe hartuko du.

Baina, apika, *gu geu gara (gizonok)* gainditu beharreko oztopo handiena, mesfidantza izaten baitugu gure gaitasun eta trebezietan. Azken finean era tradizionalan irakatsia izan den gizasemeari, “abeslari”, “dantzari”, “ferekak, mainak eta laztanen hornitzaile” edota “oinarrizko arduren emaile” izatearen estreinaldia aldapan gora egingo zaio. Dena dela, apurka-apurka, utziko diogu arrotz sentitzeari eta zera pentsatuko dugu: “*tira, ematen du balio dudala honetarako, eta gainera dibertigarria bezain gratifikantea izan daiteke*”. Bai, txikienek eskaintzen eta ematen duten xera berezia da, benetan espeziala.

Ez ditzagun ahaztu eskola komunitatea osatzen duten *gainontzeko pertsonak*: sukaldaria, garbitzaileak, atezaina eta mantentzerako langileria. Hasiera batean hauetako norbaitek, nonbait, goitik behera aztertuko du “sasi-irakasle sudurluzearen” lana. Hala eta guztiz ere laster onartuko du “*beste bat besterik ez dela*”.

Azkenekoz geure gizarte-ingurua dugu, geure aldamenekoak: *lagunak eta senitartekoak*. Nolako lana burutzen duzun jakin berri dutenen irriak eta murririk, ama liluratua – berari ez baitzioten ezer ordaindu seme-alabak zaintzeagatik-, edo “*bere semearen azken bolada honetako jokaera ez dela guztiz normala*” pentsatzen hasia den aita.

Izan ere, muturreko kasuak imajinatu ditugu. Baina, edonola ere, noizbait, eta zoritxarrez, oztopo hauetakoren batekin topo egingo bagenu, *ez dezagun etsi!*

## **9. ETA UNIBERTSITATEA, ZER?**

Unibertsitateak berak ere paper garrantzitsua jokatu behar du gizonezkook Haur Hezkuntzara hurbiltzean. Unibertsitateak, etorkizuneko hezitzaileen prestakuntza espezifikoren lehen urratsa izanik, Haur Hezkuntzari beste edozein Hezkuntza Etapari ematen dion garrantzi berbera eskaini behar dio, haurren garapenaren ondorengo faseekiko duen eragin erabakigarria azpimarratuz. *Heziketarako arazo-behar berezien detektatzea, integrazioa edo konpentsazioa* bezalako aspektuek, gailentasun berezia hartzen dute etapa honetan.

Unibertsitateak errespetatu behar du etapa hau, bere ezaugarri espezifikoak errekonozitu, eta inoiz ere hurrengo hezkuntza zikloen eskeman asimilatzen ez ahalegindu. *Beharbada hauxe guztia, eta Haur Hezkuntzan lan egiteko moduekiko errespetua, heziketa sistemaren egiazko erreformarako oinarriak izan bailitezke.*

Era berean, unibertsitateak bere irakasleria gerturatu beharko luke haurren bizitzaren estreinako urteetako ezagutzara, eta orokorrean heziketaren etapa honetara. Agian, Haur Hezkuntza heziketa bilbadura honetan tokitxo propio bat egiten atzena izatearren, eta

baita ere bere *ez derrigorrezko* aiurri honegatik, etapa honek behar besteko interesik gabe jarraitzen du. Azkeneko urteotan administraritzaren aldetik errekonozimendua eta bultzatzea areagotu badira ere, oraindik ere bide luzea dugu 0 eta 3 urte arteko etaparen eskaintza unibertsala izan dadin.

Bukatzeko, eta 0-3 urte arteko haurtxoekiko atentzioaren nahiz heziketaren inguruan dagoen lan-eskaintza anitza ikusirik ( haurtzaindegi publiko zein pribatuak, udal haur eskolak, Eusko Jaurlaritzaren eta udalen partzuergoaren eskolak, Eusko Jaurlaritzak subentzionaturiko 2 urtekoentzako gela publikoak), unibertsitateak erresponsabilitatea hartu beharko luke ikasleriak lan munduan sartzeko dituen bideak, eta zentro bakoitzak eskaintzen dizkien baldintza desberdinak ere, behar bezala ezagutzeko.

## **10. ONDORIOA.**

Naturaltasunez berdintasunean hezitako umeak era naturalean biziko du berdintasuna.